

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa aukeratu dute estatuan liburutegien eragin ekonomiko eta sozialari buruzko ikerketa bat egiteko

Beste herrialde batzuetan egindako azterlanen arabera, liburutegiek sortzen duten balioa mantentze-lanen kostua baino handiagoa da

Miércoles, 24 de diciembre de 2014

Nafarroako liburutegi-sistema aukeratu dute estatuan liburutegiek zer eragin ekonomiko eta sozial duten eta herritarrek liburutegiei zer balio ematen dieten jakiteko azterlan pilotua egiteko.

Ikerlan horretan, hainbat adierazleren bitartez, liburutegietako zerbitzuek zer balio ekonomiko duten zehaztuko dute: maileguak, jarduera kultural eta artistikoeak, jarduera kulturalak egiteko lekuek, programa kultural eta ikastaroeak, haurrentzako jarduerak eta abar.

Zerbitzu horiek ekonomikoki kuantifikatze aldera Estatu Batuetan, Australian eta Erresuma Batuan azken hamar urteetan egin dituzten azterlanen arabera, balio hori liburutegietako mantentze-lanen kostua baino handiagoa da.

Nafarroan egingo duten ikerlana Liburutegien Lankidetzaren Kontseiluak sustatu du. Kontseiluan liburutegien alorrean eskumena duten administrazio guztiak daude ordezkaturak, eta Espainiako liburutegien eragin ekonomiko eta soziala agerian jartzeko adierazleak zehazten aritu dira azken bi urteetan. Hala, metodologia hori Nafarroako liburutegi-sisteman aplikatuko dute orain, esperimentu moduan.

Azterlana egiteko serie estatistikoak baliatuko dituzte, liburutegien, ekonomiaren, demografiaren eta gizartearen ingurukoak. Nafarroako 14 urtetik gorako biztanleei galdeketa ere egin nahi diete, eta liburutegietara joaten diren herritarren datu eta iritziak bilduko dituzte.

Datu horiekin guztiekin adierazle-multzo bat sortuko dute, liburutegiek Nafarroako gizartearen zer eragin duten ebaluatzeko. Berrogei adierazle baino gehiago zehaztu dituzte, eta itzulkin ekonomikoarena da adierazgarriena (ingelesez ROI, Return On Investment), liburutegiek sortzen dituzten diru-irabaziak neurtzen baititu, egindako gastua kontuan



Nafarroako Liburutegi Nagusiaren irudia.

hartuta.

Espanian, FESABIDek (Liburutegi Elkarten Federazioak) egin zituen lehendabizi era horretako azterlanak, Bartzelonako probintziako udal-liburutegietan, hain zuzen ere. Ikerketa horien arabera, liburutegietako zerbitzuen itzulkin ekonomikoa 2 eta 3 euro artekoa da, inbertitutako euro bakoitzeko.

Adierazleei dagokienez, beste batzuk liburutegiek gizarte-gaietan, berrikuntzan, garapenean eta giza baliabideetan izan dezaketen eragina aztertzen dute, adibidez. Azterketaren emaitzak hurrengo udazkenean izango ditugu eskura.

Ikerketa gauzatzeko, Hezkuntza Ministerioko Liburutegien Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak Liburutegi Zerbitzuak akordio bat sinatu dute. Koordinazioaz eta idazkaritza teknikoaz German Sanchez Ruiperez Fundazioa arduratuko da, liburutegien eta irakurketa publikoaren inguruko azterlan ugari egin dituen erakunde independente bat.